

herrera-bidebieta

## Mendi aldizkariaren laugarren alea

### Herrerako K.E.an

Mus Lasterra izango da datorren ostiralean, maiatzak 27. Irabazleei txapela eta sariak emango zaizkie. Izenemate epea maiatzaren 22an amaituko da eta bikote bakoitzak 3.000 pezeta ordaindu beharko du.

Afaria arratsaldeko zortzi t'erdietan izango da.

### Jaietako Aretotak

aurrera darrai. Joan den astean eman zitzaion hasiera txapelketari eta bertan 16 taldek parte hartzen dute eta horietatik 3 mantentzen dira erreserban. Finalak Herrerako jaietan jokatu dira, ekainaren 17 eta 18an.

**Euskal Giroa** zikloturismo taldea Sarara joango da igandean, hilak 22. 85 Km. egingo dituzte eta goizeko 8etan abiatuko dira.

**m**endi-Zaleak Elkartek kale-ratu du jadanik Mendi aldizkariaren laugarren zenbakia.

Hamabi orrialdetan mendiarekin erlazio zuzena duen informazioa topa dezakegu oraingoan ere. Baina laugarren zenbaki honetan, mendi bizikleta izan du aztergai nagusia, kirol honen inguruko hainbat gai jorratuz.

Orain arte Mendi-Zaleak Elkartek, mendi bizikleta mendiarekin zuzenean lotuta bezala hartu izan du, baina badirudi elkarteko zenbait kidek ez duela erlazio zuzenik ikusten bi kirolen artean. Hau dela eta, Mendi-Zaleak elkarteak erabaki garrantzitsuak hartu nahi izan ditu eta era berean Mendi aldizkari honetan gazte zein kideen ikuspuntua adierazi.

Gai hontaz, Aitzpea Garmendiak editoriala idatzi du eta Mikel Zigan-



da eta Aitor Lagosek gutun pareta gai beronen inguruan.

Honetaz gain, maiatzaren 22an, igandean, izango den ibilaldiari buruzko informazio zabala eskaintzen du aldizkariak. Oraingoan, Opakua, Arrigorrista, Itxogarra eta Gaunara antolatuta dute ibilaldia. Herreratar mendizale talde handia inguratuko da igandean «Iturrietako mendiak» bezala ezagutzen diren Gasteizko ingu-

ruetara.

Mendi bizikletari dagokionez, bi izango dira Mendi Zaleak Elkartek maiatzeko hilabete honetarako antolatuta dituen irteerak, maiatzaren 22an izango dira Opakuara eta Bardeetara.


Hasieran erronka handiegia zela uste zutenek pozez hartuko dute aldizkariaren laugarren zenbaki hau.

LARRAITZ GARMENDIA ( Tfno.:391267)


Horiek agian ez dute behar,



eta zuk?



- Euskarazko lehen Hiztegi Entziklopedikoa
- 12.000 euskaldun hitzarturik obra honetan harpidetzaren bitartez
- 8. alea kalean dagoeneko



Obra honi buruz informazio gehiago jaso nahi nuke, bestelako konpromezurik gabe.

Izen abizenak .....

Helbidea .....

Herria ..... P.K. ....

Lanbidea .....

Tel. ....

Moztu eta beheko helbidera bidal ezazu.  
LUR argitaletxea • Usandizaga kalea, 17 • 20.001 - DONOSTIA

intxaurrondo

**Bernat Etxepare enparantzian,** elkar-te gastronomiko bat sortu da. Oraindik egokitze lanetan hasi ez badira ere, laster zabaltzea espero dute. Elkar-te hau gizon eta emakumezkoek parte hartzeko egina dago eta dagoeneko bazkide mordoxka osatu du. Lokala erosia da, ez Udalak emandakoa.

Denbora batez, inolako lanik egin gabe ibili dira, arazo burokratikoak zirela medio. Hala ere, datorren urteko danborrada, elkar-te bezala ospatzea espero dute. Esan beharra dago, elkar-tea bazkide berriak etorri zain dagoela, apuntatu nahi ezkerro. Hala ere, 50 bazkidetan jarri dute muga. Elkar-tea gastronomikoa ez ezik, sozio-kulturala ere izango da eta hainbat ekintza antolatze-ko asmoa dute.

**Jon Sanz** dugu Larrotxene Kultur Etxeko arduradun berria. Zazpi urte-tan postu hori bete duen Jon Aizpurua Kultur Patronatuko Ekintza Sozio-kulturalen arduradun egin dute.

Bertan bi zerbitzu eskaintzen dira, alde bate-tik, Kultur Etxeak eta bes-tetik zerbitzu sektorialak. Hemen hainbat sektoreri zuzendutako egitarau bereziak prestatuko dira.

Bai bata eta bai beste-ari zorte on opa diegu ber-ren lanpostu berrietan.

Hamar hilabetez Hego Ameriketatik barrena ibili ondoren, Txema Pierola intxaurrondotar gaztearen bizitza aberastu egin da erabat eta berriro ere noiz itzuliko pentsatzen ari da dagoeneko.


**NONDIK ZEHAR IBILI ZINEN 10 HILABETE HORIETAN?**

Argentinan hasi nintzen. Buenos Airesera iritsi eta zona andinoan ibili nintzen. Chilera pasa eta Argentinara itzuli nintzen, Iguazuko ur jauzietara. Ondoren, Paraguayra; handik Brasilerara. Bertan flora eta fauna ikaragarria dago eta baita kokodrilo ugari ere. Ondoren, Boliviara, Boliviatik Perurara, Perutik Ekuadorrera eta gero etxera.

**ZEIN IZAN ZEN ZURE HARREMANA HANGO JENDE ETA KULTURAREKIN?**

Hasieran beldur eta zalantza handiak nituen, baina baita berehala gain-ditu ere. Jendearekiko harremana oso sinplea da; oso egiazkoa, eta ez da ba-

## Hego-Ameriketako abentura



Imanol

tere berekoia. Gutxien daukan jendearekin asko ikasi dut, umeekin batez ere. Oso sentikor eta humanoak dira. Hirietan desberdintasuna nabari da, europearren eragina baitago. Badaude sartzeko arriskutsuak diren lurraldeak; baina jendearekin harremanetan jarri bezain laster, beren aberastasun pertsonalaz ohartzen zara.

**ZEIN DA SOMATU DUZUN DESBERDINTASUN NAGUSIA GURE LURRAREKIKO?**

Egiazkotasuna, sinpletasuna, berekoitasun eza. Bereziki nekazal lurraldeetan eta hiri handietako zona marjinaletan.

**NOLAKOAK DIRA HANGO PARAJEAK?**

Ikaragarriak. Lehen aldiz, glaziare, laku, men-

diekin harremana izan nuen. Bertan, natura gordina, esplotatu gabea da eta tamaina handiko mendiak ikusi ditut. Hego Amerikak denetatik dauka: basamortuak, kostak, mendiak, glaziareak... egin diren sarraskiak ugari izan badira ere, eden bat bezalakoa dela esango nuke.

**ZER ESANGO ZENIOKE HORRELAKO BIDAI BAT EGITEKO GOGOEA DUENARI?**

Dudarik gabe, asko pentsatu gabe egiteko esango nioke. Gauza onak eta txarrak topatuko ditu, baina onak gehiago izango dira. Beste kontinente batean topatuko duen aberastasuna ikaragarria da maila guztietan.